



Bediako Udala

COVID-19 DELA-ETA HARTUTAKO APARTEKO NEURRIAK

Coronavirusaren transmisioak (COVID-19) sortutako egoeraren bilakaera ikusita, eta erantzukizun-printzipioei jarraituz, Bediako Udalak Erantzun Plan bat egin du, honako jarduera-eremu hauekin:

1. Bakarrik dauden 65 urtetik gorako pertsoneri, eta ezgaitasuna edo gaixotasun kronikoa daukaten pertsoneri laguntzea.

2. Berrogeialdiko edo konfinamenduko neurri baten eraginpean dauden pertsoneri laguntzea.

Aurreko puntuetan aipatutako laguntza honetara izango da:

- *Elikagaiak eta oinarrizko higiene-artikuluak erostea.*
- *Botikak lortzeko laguntza: bereziki paziente kronikoei zuzendua eta medikuak agindutako botiketara mugatuta.*

3. Zaurgarritasun, ezgaitasun edota egoera berezian dauden pertsonekin, edo berrogeialdian edo konfinamenduan daudenekin, telefonoz harremanetan jartzea.

Aipatutako laguntza horietakoren bat eskatu nahi izanez gero, udalarekin harremanetan jarri beharko duzu honako telefono zenbaki honetan: 946 314 200, 10:00etatik 13:00etara.

Bediako bizilagunek, telefono bidezko deiak egiteko boluntario gisa bat egin nahi izanez gero, astelehenetik aurrera 946 314 200 telefonora deitu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara.

Bestalde, jakinarazi nahi dugu Bizkaiko Foru Aldundiak, #BizkaiaGara programaren bidez, boluntarioak batu nahi dituela koronabirusaren larrialdia adineko pertsona zaurgarriei sortutako beharrak konpontzen laguntzeko. Horregatik, Udalak Bediaren elkartasuna eskatzen du, bizilagunak #BizkaiaGara laguntza-sarearekin bat egitera animatuz.

#BizkaiaGara boluntario-sarean parte hartu nahi dutenek Boluntaren bidez egin ahal izango dute, astelehenetik aurrera 944 161 511 telefonora deituz edo bizkaiagara@bizkaia.eus helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz.

Zalantzarik gabe, beste ekintzaren bat egin dezakegula uste baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan lehen aipatutako udalaren zenbakian.

Ahal dugun neurrian, etxean geratzeko eta isolamendu neurriak hartzeko deia egiten dugu, premia larririk izan ezean.

Bedian, 2020ko martxoaren 15ean.

Aitor Sorriketa Larrea
Alkatea